

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Guardiako txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzari

Udalbatza honek, 2019ko irailaren 12ko bilkuran, hasierako onespena eman zion Guardiako txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen duen ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean —2019ko irailaren 25eko asteazkeneko ALHAOn (111. zk.) argitaratu zen hari buruzko iragarkia— ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta, beraz, behin betiko onesten da ordenantza, eta indarrean dauden xedapenek agintzen dutena betez, osorik argitaratzen da ordenantza haren testua:

TXOSNA ETA ANTZEKOEN ESLEIPENA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea txosna ez profesionalen eta antzekoen instalazioa herriko edo auzoko jaietan eta bestelako aparteko ospakizunetan.

2. artikulua. Ezaugarri orokorrak

1. Txosnak Guardiako Udalak aurrez zedarritutako lekuetan bakarrik jarri ahal izango dira.

2. Instalazio horiek baldintza tekniko jakin batzuk bete behar dituzte pertsonen nahiz ondaren segurtasuna bermatzeko eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, indarrean dauden araudietan ezarritakoaren arabera; eta, bereziki, alderdi hauei dagokienez: sendotasuna, egituren funtzionamendua, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriak, osasungarritasuna eta higiena.

3. Guardiako Udalaren eskumena da txostenen esparrua zedarritzea eta gehienez ere zenbat txosna jarri ahal izango diren eta zer epetan jardun ahal izango diren ezartzea.

4. Txosna batzordeak jendea biltzea dakarren edozein jarduera antolatzen badu, egitarau ofizialaren paraleloki, haien proiektu bat aurkeztu beharko du balioesteko egokia den eta bat datorren jai egitarau nagusiarekin.

5. Txosna barrutiaren aniztasuna bermatzeko, instalazioak proportzios banatuko dira kultura, kirol eta gizarte ekintzako esparruen artean. Betiere, jarduera tokiko barrutian egiten duten auzotar taldeak izan behar dute.

6. Txosna kopurua honako irizpide hauen arabera banatuko da:

a) Eskatzailea eta haren ibilbidea Guardiako gizartean errotuta egotea.

b) Bazkide edo kide kopurua.

c) Taldearen koordinazio maila eta presentzia, urtean zehar, bertako erkidegoarentzako beste proiektuetan.

7. Hala adierazten duten kolektibo, talde edo elkarteek txosna parteka dezakete beste talde batzuekin, arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua. Eskaerak eta baimenak

1. Txosnak jartzeko eskaerak hilabete lehenago aurkeztu behar zaizkio Udalari.
2. Datu hauek azaldu behar dira eskabidean: txosna jarri nahi duen taldeko ordezkariaren izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia.
3. Txosna jarri nahi duen taldeko ordezkariak solaskide lanak egingo ditu Udalarekiko, txosna jartzen denetik kentzen den arte. Jarduerak irauten duen bitartean lokalizatu eta harremanetan jartzeko moduan egon beharko du.
4. Jarduerari ekin aurretik, erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du taldeak, eta haren zenbatekoa ezingo da izan azaroaren 10eko 4/1995 Legean, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoan, ezarrita dagoena baino txikiagoa. Baimendutako jarduerak hirugarren batzuei eragin lekizkiekeen kalte galeren erantzukizuna estaliko du aseguru horrek. Eskaerarekin batera froga agiria aurkeztuko da.

4. artikulua. Higiene eta osasun baldintzak

1. Txosna jartzean eta martxan dagoen bitartean, une oro bete beharko dira elikagaien eta edariaren osasungarritasunaren arloan indarrean dagoen sektoreko legeriak ezarritako higiene eta osasun baldintzak.
2. Txosna esleitu zaion elkarteak arduratu beharko da komun erabilgarriak jartzeaz.
3. Kableak airetik jartzeko ahalegina egingo da, eta ezingo dira kableak lurrean utzi mul-tzokatu eta behar bezala babestu gabe, ibilgailuentzako eta pertsonentzako arrisku elektrikorik sor ez dadin.

5. artikulua. Instalazioen segurtasun baldintzak

1. Jarduera hasi aurretik, egituraren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da udaletxean. Horrekin batera 1:100 eskalako planoak erantsiko da, bai eta egituraren segurtasunari eta muntaketari buruzko ziurtagiria ere, teknikari eskudun batek egina eta instalazioaren egituraren sendotasuna bermatzen duena. Baldintza hori bete beharrik ez dute izango konplexutasun teknikorik gabeko instalazioek, edo beren ezaugarriengatik halakorik behar ez dutenek.
2. Ezingo dira zoruan ainguratu, eta eusteko beste elementu batzuk erabili beharko dira nahitaez, hala nola zapatak edo zurezko takoak.
3. Errekuntzako edo berokuntzako tresnak jartzekotan, elkarrengandik gutxienez 1,5 metrora jarriko dira. Ur bonbonek segurtasun balbula eduki behar dute.
4. Gas instalazioak sektoreko legeria bete behar du.
5. Gutxienez su itzalgailu bat jarri beharko da, 21^a-113B eraginkortasuneko, berrikuspenetan egunean dagoena eta erabiltzeko oztoporik gabe.

6. artikulua. Egitarau nagusiarekin koordinatzeko baldintzak

1. Eskatzaileek egoera onean mantenduko dituzte ekitaldiak egiteko udalak zuzenean edo zeharka lagatako azpiegiturak. Kalteren bat eraginez gero, eskatzaileak ordaindu beharko du konponketa.
2. Euskara erabiliko da, gaztelaniarekin batera, txosnetatik edo aldi baterako instalazioetatik sortzen diren era guztietako errotulu eta oharretan.

7. artikulua. Ordutegi, soinu eta merkataritza baldintzak

1. Irekitzeko eta ixteko ordua udalak erabakitakoa izango da, eta ezingo da izan ostalaritza establezimenduak ireki eta ixteko arauko 3. taldeko lokalen ordutegia baino zabalagoa. Jende guztiak jakin dezan, ixteko ordua adierazten duen kartel bat jarriko da begi bistan.

Ixteko ordua iristean, megafonia eta soinu tresnak isilduko dira. Txosnak itxi egingo dira, eta bertan bakar-bakarrik geldituko dira ixteko eta garbitzeko ardura dutenak.

2. Bide eta leku publikoetan soinu igorpenen gehieneko mailek ezingo dituzte hauek gainditu:

- a) 95 dezibel jarduera hasten denetik 24:00ak arte, eta inoiz ez da hasiko 12:00ak baino lehen.
- b) 80 dezibel 24:00etatik itxi arte.

3. Salmenta prezioak kartel elebidun batean jarriko dira, jendearen bistan, uneko merkatu prezioekin bat etorriz.

4. Baimendutako txosnak behartuta daude estetika, garbitasuna eta ordena zaintzera, bai txosna barruan, bai kanpoan, haren edo txosna barrutiaren inguruan.

8. artikulua. Jardueraren hasiera eta amaiera

1. Udalak adieraziko du jarduera amaitzeko epea, eta material guztia ekitaldia amaitu eta 48 ordu igaro baino lehen kendu beharko da. Okupatutako lekua eta inguruak guztiz garbi eta, hala badagokio, desinfektaturik eta konpondurik utzi beharko dira.

9. artikulua. Fidantza

Txosna edo instalazioa abiarazi baino lehen, eta estaltzeko kalte-galerak edo jarduera arau honetan ezarritakoaren arabera gauzatzen dela, 300 euroko bermea ezarriko da udalean. Okupatutako ingurua garbi utzi dela eta kalterik eragin ez dela egiaztatu ondoren, udalak bermea itzuliko du.

Kalteren bat izan bada, udalak bermea erabiliko du konponketaren gastuak ordaintzeko. Konponketaren zenbatekoa bermea baino handiagoa bada, eskatzaileak ordaindu beharko du aldea.

10. artikulua. Zehapen araubidea

Ordenantza honen arau hausteak dira haren artikuluetan xedatutakoa eta baimenak emateko baldintza zehatzak urratzen dituzten ekintzak eta ez egiteak, eta hiru mailatakoak izan daitezke: arau hauste arinak, larriak edo oso larriak.

11. artikulua. Arau hausteak

11.1. Arau hauste arinak:

Arau hauste arinak dira ordenantza honetan xedatutakoaren eta udalak emandako baime-netan azaltzen diren baldintzen ez-betetze guztiak, espresuki arau hauste larri edo oso larritzat jotzen ez badira.

11.2. Arau hauste larriak:

- a) Instalazioa irekitzea ezarritako ordutegitik kanpo.
- b) Zarata maila gehiegizkoa.
- c) Ez onartzea edo oztopatzea udalaren ikuskatze eta kontrol lana.
- d) Jarduera hasi eta amaitzearen gainean 8. artikuluan jasotakoa urratzea.
- e) Ordenantza honetan jasotakoaren edozein ez-betetze, larritzat edo oso larritzat jotzen ez dena.

f) Bi arau hauste arin edo gehiago egitea.

11.3. Arau hauste larriak:

- a) Txosna irekitzea ezarritako ordutegitik kanpo.
- d) Gehieneko zarata mailak gainditzea.
- c) Ez onartzea edo oztopatzea udalaren ikuskatze eta kontrol lana.
- d) Jarduera hasi eta amaitzearen gainean 8. artikuluan jasotakoa urratzea.
- g) Bi arau hauste arin edo gehiago egitea.

11.4. Arau hauste oso larriak:

- a) Instalazioa irekitzea aurrez udal baimena eskuratu gabe.
- b) Kokatzeko esleitutako lekuak ez errespetatzea.
- c) Ez errespetatzea instalazioa jartzeko eta/edo kentzeko ezarritako egunak.
- d) Edariak beirazko ontzietan zerbitzatzea.
- e) Kalteak eragitea udal erabilerako ondasunetan, zerbitzuetan edo ondarean.
- d) Txosna aurreikusi gabekoetarako edo baimendutakoez bestelakoetarako erabiltzea.
- f) Esleitutako titulartasuna aldatu edo eskualdatzea.
- g) Ustiapena osorik edo partzialki lagatzea.
- h) Esleitutako eremua osorik edo partzialki lagatzea.
- i) Osasun eta higiene neurriak urratzea, osasun publikoaren arrisku larria sortuz.
- j) Adingabeei edari alkoholdunak eta tabakoa saltzea.
- k) Pankartak, kartelak eta sinboloak erabiltzea eta erakustea, baldin eta pertsonen duintasunari erasotzen badiote, terrorismoaren biktimak iraintzen badituzte, terrorismoa goratzen badute edo alderdi politiko, federazio eta koalizio politikoaren nahiz legez kanpo utzitako elkartearen aldeko proselitismoa egiten badute.
- l) Bi arau hauste larri edo gehiago egitea.

12. artikulua. Zigorrak

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 141. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, ordenantza honetan araututako arau hausteetarako zehapen hauek finkatzen dira:

- a) 3.000 euro arteko isuna.
- b) Emandako baimena baliogabetzea.
- c) Txosna jarri edo erabiltzeko debekua, gehienez ere hiru urterako.
- d) Arau hauste larrietan, gehienez ere 1.500 euroko isuna.
- e) Arau hauste arinetan, gehienez ere 750 euroko isuna.

Zehapenak zehaztu eta ezartzerakoan, eta kontuan hartuta aurreko idatz zatian gehieneko zenbatekoak ezartzen direla, proportzionaltasun printzipioa hartuko da aintzat, zeina jasotzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 131. artikuluan, eta behar bezalako egokitasuna egon beharko du arau-hauste egintzaren larritasunaren eta ezartzekoa den zehapenaren artean, batez ere irizpide hauei begiratuz:

- a) Nahita egin den edota behin eta berriz egin den.
- b) Eragindako kalteak nolakoak diren.

13. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea

Udal agintaritzak egoki jotzen dituen kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu, jarduera uzteko agintzea eta hura zigilatzea barne, baldin eta ez badira betetzen baimenean ezarritako baldintzak, instalazioan arriskua balego edo osasun neurriak betetzen ez badira, osasun publikoaren arrisku larria sortuz.

Horrelako neurriak har daitezke, orobat, oso larritzat jotzen diren egintzak gertatzen badira, hondatutako elkarbizitza harremanak bere onera ekartzeko, egintzak jarraitzea edo errepikatzea edo kalteak sortzen segitzea saihesteko.

Guardia, 2019ko azaroaren 20a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO